





Hutsik, Bilbao, 1997???


ez nezake (09-08-06)

Askatasunari buruz  
idatz nezake.

Musa eta inspirazioaren  
argiaren ondoan  
poesia egin nezake.

Zer ikusten dudana  
esan nezake  
eta nire irriarekin  
dena koloreztatuz  
abesti eder bat xuxurla nezake.

Baina zuri buruz  
idatziko nuke  
beste behin ere.  
Zein haundia da bakardadea  
nostalgiarekin kutsatua dagoenean.  
Zein haundia  
Zuk betetzen duzun espazio hutsa.



*Bernat eta Bilbao, 2007???*



